

Bizkaia GAZTEAK

Estrategiaren tarteko EBALUAZIOA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

AURKIBIDEA

Bizkaia Gazteak

0 ESTRATEGIAREN TARTEKO EBALUAZIOAREN FITXA TEKNIKOA 3

1 GAZTEEN TESTUINGURUAREN AZTERKETA 14
1.1 GAZTEEN TESTUINGURUAREN ADIERAZLEAK
1.2 GAZTEEN TESTUINGURUAREN GAKOAK

2 ESKU-HARTZEAREN DATU OROKORRAK 19
2.1 GAUZATUTAKO AURREKONTUA
2.2 GAUZATUTAKO PROGRAMAK
2.3 ERAGINDAKO GAZTEAK

3 ESKU-HARTZEAREN ERAGINA 23
3.1 ERAGINA IKUSPEGI POLITIKO-TEKNIKOTIK
3.2 ERAGINA GAZTEEN IKUSPEGITIK

4 ESKU-HARTZEAREN EGOKITASUNA 46
4.1 EGOKITASUNA IKUSPEGI POLITIKO-TEKNIKOTIK
4.2 EGOKITASUNA GAZTEEN IKUSPEGITIK
4.3 EGOKITASUNA BESTE GAZTE-POLITIKA BATZUEKIN BAT ETORTZEAREN ARABERA

5 ONDORIOAK 64

0 *BIZKAIA GAZTEAK 2030* ESTRATEGIAREN TARTEKO EBALUAZIOA FITXA TEKNIKOA

Egindako tarteko ebaluazioaren ezaugarri metodologikoak labur deskribatzen dituen kapitulua.

0.1 Ebaluatzeko beharra eta helburuak

Zergatik egin dugu tarteko ebaluazio bat?

Bizkaia Gazteak 2030 **Estrategiak berak ezartzen du tarteko ebaluazio bat egin behar dela** 2025aren amaieran, **urteko ebaluazio sintetikoen emaitzak integratzeko eta programen egokitasuna eta inpaktua baloratzeko.**

Helburu operatiboa

Ebaluazio honen helburua da ***Bizkaia Gazteak 2030*** **estrategiak** argitaratu zen unean (2022) **identifikatu ziren erronkei zer ekarpen egin dien** ikustea, eta **gazteen testuingurura zenbateraino egokitzen den aztertzea.**

Ebaluazioaren ezaugarriak

Ebaluazio-prozesuak **hiru tresna mota** konbinatzen ditu: **politikarientzako eta teknikarientzako galdetegi** bat, **parte hartzen duten** edo onuradun diren **gazteentzako galdetegi** bat, eta gazteei buruzko **ikerketen, azterlanen eta adierazleen** analisi bat.

Azterketa esku-hartzearen hiru dimentsioen inguruan egituratzen da: forala, eskualdekoa eta **gaztea, eta *Bizkaia Gazteak 2030*en arkitekturaren hiru eskalak** jasotzen ditu: bi erronka estrategiko handiak, hamar helburuak eta ezarritako urteko programak.

Azkenik, **ebaluazioak,** ahal den neurrian, **genero-ikuspegia, ikuspegi intersekzionala eta komunitarioa** barne hartzen ditu, estrategiaren ikuspegi osoagoa eta integralagoa lortzeko.

Zenbat egin den ez ezik, zer aldatu den, oraindik zer den beharrezkoa eta etorkizunean zer egokitu behar den ere ebaluatzea.

0.2 Ebaluazioko galderak

ERAGINA

Helburua

Baloratzea zer neurritan lagundu duen *Bizkaia Gazteak 2030*ek gazteen errealitatean nahi ziren aldaketak lortzen.

Ebaluazio-galderak:

1. Lortu al dira *Bizkaia Gazteak 2030*en 2025erako helburuak?
2. Nola lagundu du *Bizkaia Gazteak 2030*ek helburu horiek lortzen?

EGOKITASUNA

Helburua

Aztertzea ea *Bizkaia Gazteak 2030*ek egokia izaten jarraitzen duen gazteen egungo beharrei eta arlo horretako politika berrienei erantzuteko.

Ebaluazio-galderak:

1. *Bizkaia Gazteak 2030* gazteen egungo beharretara egokitzen da?
2. *Bizkaia Gazteak 2030* EAEko eta Europako gazte-politiketara egokitzen da?

Ebaluazioaren bi ikuspegiak (eragina eta egokitasuna) esku-hartzearen hiru dimentsioei (forala/eskualdekoa/gaztea) eta hiru eskalei (ardatza/helburua/programa) aplikatu zaizkie.

0.3 Ebaluazioaren metodologia eta tresnak

DESK RESEARCH

BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

- ✔ Datu-basea eta gazteriaren urteko diagnostikoaren adierazleen taula.
- ✔ Gauzatutako aurrekontua, garatutako ekintzak eta programek eragindako pertsonak.
- ✔ Gazteriari buruzko ikerketak eta azterlanak.

EMAITZA: lehen ebidentziak, joerak eta hipotesiak.

GALDETEGIAK

LEHEN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

- ✔ Langile politiko-teknikoen eta parte hartzen duten gazteen pertzepzioak jasotzea.
- ✔ Programen eraginaren eta egokitasunaren balorazioa (gogobetetasuna, eraginkortasuna, irismena...)
- ✔ Ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa.

EMAITZA: programen funtzionamenduaren ikuspegi teknikoa eta gaztea.

TRIANGELATZEA

EMAITZAK INTEGRATZEA

- ✔ Informazio-iturrien eta emaitzen arteko kontrastea.
- ✔ Lortutako informazioaren irakurketa integratua.
- ✔ Ondorio osatuagoak eraikitzea.

EMAITZA: erabakiak hartzeko ondorioak.

0.4 Ebaluazioan parte hartu duten pertsonak

Ebaluazioak **parte-hartze garrantzitsua** izan du, batez ere *Bizkaia Gazteak 2030* programak baloratu diren galdetegi tekniko-politiko eta gazteen bidez.

Guztira, **879 parte-hartzaile izan dira*:** horien artean, *Bizkaia Gazteak* programetan inplikatuta dauden teknikariak (184), politikoak (22) edo beste mota batekoak (30) egon dira, baita gazte onuradunak (643) ere.

	PROFIL MOTA	ERANTZUN KOP.*	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK
TEKN - POL GALDETEGIA	Teknikariak	184	153	31	-
	Politikariak	22	17	5	-
	Bestelako langileak	30	28	2	-
GAZTEENTZAKO GALDETEGIA	Gazte onuradunak	643	316	320	7
	Guztira	879	514 (%58,5)	358 (%40,7)	7 (%0,8)

Ebaluazioan parte hartu duten pertsonen %58 emakumeak izan dira.

** Baliteke datu hori pertsona bakarrari buruzkoa ez izatea; horregatik idatzi dugu "erantzun kopurua". Teknikari, politikari edo gazte berak programa bati baino gehiagori buruzko balorazioak bidali ahal izan ditu, eta horietako bakoitza pertsona desberdintzat hartu da.*



GALDETEGI POLITIKO-TEKNIKOKO PARTE-HARTZAILEAK

Jarraian, ***Bizkaia Gazteak 2030 Estrategiaren* programak baloratzeko galdetegi politiko-teknikoa parte hartu duten pertsonen profila** erakusten da. Aldagai hauek hartu dira kontuan:

PARTE-HARTZAILEEN PROFILARI BURUZ BILDUTAKO DATUAK

- ✔ **Sexua.**
- ✔ **Lanbide-profila** (teknikoa/politikoa/bestelakoa).
- ✔ Galdetegia erantzun den **hizkuntza.**
- ✔ Programaren **dimentsioa.**
- ✔ Programa *Bizkaia Gazteak* estrategiako zer **ardatz eta helbururen** parte den.

ERAGINARI ETA EGOKITASUNARI BURUZKO ITEM ESANGURATSUAK
(galdetegi bakoitzeko programa bat baloratzen zen)

ERAGINA

- ✔ **Programen helburuen betetze-maila** (eraginkortasuna).
- ✔ **Baliabideen eta emaitzen errendimendu-maila** (efizientzia).
- ✔ Gazteengan sortutako **eraginaren eremu zehatzak.**
- ✔ **Eragina kolektibo** espezifikoetan.
- ✔ Emaitzak lortzeko **palankak eta oztopoak.**
- ✔ Programetan **genero-ikuspegia** aplikatzea.


EGOKITASUNA

- ✔ **Programen jarraipenaren aldeko apustu-maila.**
- ✔ **Jarraipenaren aldeko apustua egiteko arrazoiak.**
- ✔ **Eskatutako ekintza** berriak.
- ✔ **Ikuspegi berriak** aplikatzeko egokitasuna.



Programa gehienak arduradun bakar batek baloratu ditu (teknikariak edo politikoak), baina batzuetan bi pertsonaren edo gehiagoren balorazioak jaso dira.

- **Guztira, 236 pertsonak erantzun diote galdetegi tekniko-politikoari.** Emakumeak erantzunen %84 izan dira.
- **Inkesten %16,5 euskaraz** erantzun dira.
- Galdetegiak erantzun dituzten pertsonak honela banatzen dira: profil **teknikoa (%78), politikoa (%9,3) eta bestelako langileak (%12,7). Azken kategoria horretan barne hartzen dira, batez ere, gazteguneetako langileak eta, neurri txikiagoan, beste administrazio batzuetako eta programen zerbitzuen esleipendun diren enpresetako langileak.**
- Erantzunen dimentsioari dagokionez, **eskualdekoa (%46,2) eta forala (%38,6)** nabarmentzen dira. Bestalde, **gazteen dimentsioak %14,8** hartzen du. Garrantzitsua da azpimarratzea programa bera profil batek edo gehiagok baloratu ahal izan dutela.



Zein da zure lanpostua?

PROFILA	ERANTZUNEN KOP.	GUZTIZKOAREN GAINEKO PISUA
Teknikoa	184	**%78,0**
Politikoa	22	**%9,3**
Beste bat	30	**%12,7**

Bizkaia Gazteak estrategiaren zein dimentsiotakoa da ebaluatu beharreko programa?

ERANTZUN BAKOITZARI LOTUTAKO DIMENTSIOA	ERANTZUNEN KOP.	GUZTIZKOAREN GAINEKO PISUA
Forala	91	**%38,6**
Eskualdekoa	109	**%46,2**
Gaztea	35	**%14,8**
Zehaztugabea*	1	**%0,4**

** Hemendik aurrera, «Zehaztugabea» zutabea ezabatu da, ehuneko oso txikia delako.*

- **Galdetegien erantzunek *Bizkaia Gazteak 2030*eko programen hiru dimentsioetako ehuneko esanguratsu bat hartzen dute:**

✔ **Foru-programen %85ek...**

✔ **Eskualdeko programen %72ak...**

✔ **Gazte-programen %100ek...**

Erantzunen %98 2025ean garatutako programei buruzkoak izan dira; aurreko urteetako programen balorazioak oso gutxi izan dira (%2).

BALORAZIO POLITIKO-TEKNIKOA DUTE

- **Ardatzen araberako banaketari dagokionez, gizarte-eraikuntzak (erantzunen %52,9) emantzipazioak baino pisu handixeagoa du (erantzunen %47,0).**
- **Emantzipazioaren barruan, Enplegu eta Prestakuntzako helburuak nabarmentzen dira, eta Gizarte-eraikuntzan, berriz, Partaidetza, Aniztasuna eta Osasuna eta Ongizatea.**

Adierazi *Bizkaia Gazteak 2030* programaren zer helbururekin lotzen den programa

ARDATZA	HELBURUA	ERANTZUN KOP.	EHUNEKOA	
Emantzipazioa	Enplegua	**40**	**%16,9**	**%47,0**
	Familia	**14**	**%5,9**	
	Prestakuntza	**50**	**%21,2**	
	Etxebizitza	**7**	**%3,0**	
Gizarte-eraikuntza	Aniztasuna	**27**	**%11,4**	**%52,9**
	Kultura-nortasuna	**4**	**%1,7**	
	Inklusioa	**15**	**%6,4**	
	Parte-hartzea	**39**	**%16,5**	
	Osasuna eta ongizatea	**26**	**%11,0**	
	Jasangarritasuna	**13**	**%5,5**	
	Zehaztugabea	**1**	**%0,4**	

OHARRA: Txosten honen eragin- eta egokitasun-kapituluetan, erantzunen %10etik gorako guztizko pisua duten helburuak bakarrik bereizten dira. Gainerakoek lagin-oinarri oso txikia dute, eta horrek interpretazioaren sendotasuna mugatzen du: Familia, Etxebizitza, Kultura-nortasuna, Inklusioa eta Jasangarritasuna.


GAZTEEN GALDETEGIKO PARTE-HARTZAILEAK

Jarraian, ***Bizkaia Gazteak 2030*** **Estrategiaren programak baloratzeko gazteentzako galdetegian parte hartu duten pertsonen profila** erakusten da. Aldagai hauek hartu dira kontuan:

PARTE-HARTZAILEEN PROFILARI BURUZ BILDUTAKO DATUAK	ERAGINARI ETA EGOKITASUNARI BURUZKO ITEM ESANGURATSUAK
✔ **Sexua.** ✔ **Adina.** ✔ Bizi den **udalerria/**eskualdea. ✔ **Jatorria** (jaioterria). ✔ Galdetegia erantzun den **hizkuntza.** ✔ Programaren **dimentsioa.** ✔ Programa *Bizkaia Gazteak* estrategiako **zer ardatz eta helbururen** parte den.	**ERAGINA** ✔ Programarekiko **gogobetetze-maila.** ✔ Programaren **hautemandako eragin zehatzak.** ✔ **Aldundiak** programan **duen zeregina ezagutzea.** ✔ Aldundiarekiko **harremanarekin jarraitzea.** **EGOKITASUNA** ✔ **Programaren preskripzio-maila.** ✔ **Programei eskatutako aldaketak.**

- Guztira, **643 gaztek erantzun diote galdetegiari,** eta gizonak eta emakumeak modu orekatuan banatu dira.

ERANTZUNAK GUZTIRA



- Hizkuntzari dagokionez, **gazteen hamar inkestatik sei euskaraz erantzun dira.**

ERANTZUNAK EUSKARAZ



- **Erantzunen %80 inguru 15 eta 19 urte arteko pertsonek eman zituzten. Beraz,** hurrengo analisiek gaztaroa berriki hasi duten pertsonen balorazioa jasotzen dute batez ere.



- ***Bizkaia Gazteak 2030*** **baloratu duten gazteen %85 Bizkaian jaio da.** Kanpoan jaiotako %15ari begira, Amerika (%31,3), Afrika (%21,2), Estatua (%17,2) eta Euskadi (%14,1) nabarmentzen dira.

Non jaio zinen?

JATORRIA BIZKAITIK KANPO	EHUNEKOA
Amerika	%31,3
Afrika	%21,2
Estatua	%17,2
Euskadi	%14,1
Asia	%7,1
Europa	%4,0
Zehaztu gabe	%5,1

Bizkaian jaioak
544
%84,6

Bizkaitik kanpo jaioak
99
%15,4

- **Parte-hartzaileak bizi diren eskualdeei** dagokienez, **desoreka handiak daude:** Durangaldea nabarmentzen da, eta, ondoren, Ezkerraldea eta Meatzaldea; aldiz, Arratia, Busturialdea, Enkarterri, Lea-Artibai eta Nerbioi-Ibaizabalek ez dute ia partaidetzarik.

Zein udalerri eta eskualdetan bizi zara?

BIZI DEN UDALERRIA	GUZTIZKOAREN GAINEKO PISUA
Durangaldea	%31,6
Ezkerraldea	%14,0
Meatzaldea	%11,8
Bilbao	%10,4
Uribe-Kosta	%10,3
Txorierri	%7,3
Mungialdea	%4,8
Nerbioi-Ibaizabal	%1,6
Busturialdea	%1,4
Arratia	%0,8
Enkarterri	%0,8
Lea-Artibai	%0,2
Zehaztu gabe	%5,1

- **Galdetegietan baloratutako programen dimentsioari dagokionez, argi eta garbi ikusten da eskualde-dimentsioa dela nagusi (%67,3),** eta horrek agerian uzten du **balorazioak hurbileneko jarduerei dagozkiela batez ere.** Dimentsio gazteak ere garrantzi handia du (%25,0); foru-dimentsioak, berriz, balorazio gutxi jaso ditu (%4,7).

- ***Bizkaia Gazteak 2030*en bi ardatz estrategiko nagusiei dagokienez** (Emantzipazioa eta Gizarte-eraikuntza), **banaketa oso orekatua da,** eta %46ra iristen da bi kasuetan.

- *Bizkaia Gazteak* estrategiaren hamar helburuei dagokienez, **prestakuntza-programak nabarmentzen dira, erantzun gehienak jaso baitituzte (%43,1).** Ondoren, Parte-hartzea (%24,0) eta Osasuna eta Ongizatea (%11,4) daude.

DIMENTSIOA	ERANTZUN KOP.	GUZTIZKOAREN GAINEKO %
Eskualdekoa	433	**%67,3**
Forala	30	**%4,7**
Gaztea	161	**%25,0**
Zehaztugabea	19	**%3,0**

ARDATZA	HELBURUA	ERANTZUN KOP.	GUZTIZKOAREN GAINEKO %	
Emantzipazioa	Enplegua	**19**	**%3,0**	**%46,2**
	Prestakuntza	**277**	**%43,1**	
	Etxebizitza	**1**	**%0,2**	
Gizarte-eraikuntza	Kultura-nortasuna	**4**	**%0,6**	**%46,7**
	Aniztasuna	**43**	**%6,7**	
	Inklusioa	**26**	**%4,0**	
	Parte-hartzea	**154**	**%24,0**	
	Osasuna eta ongizatea	**73**	**%11,4**	
	Zehaztugabea	**46**	**%7,2**	**%7,2**

OHARRA: txosten honen eragin- eta egokitasun-kapituluetan, pisu handia duten helburuak bakarrik bereizten dira. Gainerakoek lagin-ainarri oso txikia dute, eta horrek interpretazioaren sendotasuna mugatzen du (Etxebizitza eta Kultura-nortasuna, batez ere).

- **Gazteen erantzunak 2025ean garatu ziren *Bizkaia Gazteak Estrategiaren* 50 programei buruzkoak izan dira. Programen banaketa oso desorekatua da,** *eta programa gutxik balorazio gehienak barne hartzen dituzte (I'm Bizi, Googaz eta Sustantzien kontsumoak lan eremuan...).*

PROGRAMA	ERANTZUN KOP.
Aisialdi osasuntsua EGK	1
Aisialdiko Begirale Ikastaroa	2
Aholkularitza sexologikoak ikastetxeetan	1
Belaunaldi arteko denboraren bankua	1
Europako gaiei buruzko graduondoko bekak	3
Lanekoak ez diren praktikak egiteko bekak	1
Hitzaldiak eta tailerrak astialdiko taldeekin	4
Etorkizunak eraikitzen	2
Ikastaroa: Lehen sorospenak Gazte Gelan 2024an	2
Zeinu-hizkuntzari buruzko ikastaroa	1
EGK orokorra	3
Ekinprest	1
Ekintzailetza Bideo Lehiaketa	6
Aniztasunaren erronka	1
Elkarte Sareak: kolorez beteriko bailara	6
Elkartegintza sendotzeko formakuntzak	9
Emakume Ekintzaileak Topaketa	1
Enpresa ideien lehiaketa	7
Esperientzien bankua	2
CRASH azoka	18
Pirinioez gaindiko Gazteriaren Foroa	1
Gazte Artea Ezkerraldean	4
Gazte boluntarioak	6
Gazte ekintzaileak	4
GazteEkin	6
Gaztekimen	27
Gizarte kohesioan eta berdintasunean hezten	2

PROGRAMA	ERANTZUN KOP.
Googaz	130
Ahalduntze feministarako emakumeen gazte-taldea	1
Aniztasunean elkarrekin bizitzeko gazte-taldea	7
Baliabideen gida (2024)	1
I'm bizi	161
Zehaztugabea	42
Babes-sarerik ez duten gazteentzako hasierako gizarte- eta prestakuntza-ibilbideak	10
Osasun mentaleko jardunaldia	2
Kirola baino gehiago. Kirola eta aniztasun funtzionala	3
Leihosex	8
Lonjagune	1
Elikagaiak manipulatzea	2
Meraki	2
Mural Koloretan	3
Nork-Nori-Zer EGK	1
"Papel" antzezlana bullyingari buruz	1
Osatuz	1
Enkarterriko Gazteria Panela	1
Ekintza komunitarioaren programarako eta bakardadearen prebentziorako dirulaguntzak. Lehenetsitako kolektiboetan lotura komunitarioen ikuspegia txertatzea ahalbidetzen duten zeharkako proiektuak.	20
Aniztasuna eta inklusioa sustatzen duten ekintzak egiteko dirulaguntzak	6
Sustantzien kontsumoak lan eremuan. Lanbide Heziketan	62
Take Action	47
Zinegogoak	9

1 GAZTEEN TESTUINGURUAREN AZTERKETA

Kapitulu honetan, gazteen egoeraren adierazle nagusiak eta 2022-2025 aldian izandako joerak berrikusten dira.

errealitateak
ingurunea
beharrak
aukerak



0.1 Gazteen testuinguruaren adierazleak

Kapitulu honetan, **Bizkaiko gazteen testuinguruak *Bizkaia Gazteak 2030* Estrategia indarrean egon denetik izan duen bilakaeraren** azterketa sintetikoa egiten da, 2022 eta 2025 bitartean eskuragarri dagoen informazioa erreferentziatzat hartuta.

***Bizkaia Gazteak 2030* Estrategiari lotutako 215 adierazleen sisteman** oinarritzen da azterketa. Adierazle-panel bizia da, etengabe eguneratzen dena, eta gazteei eragiten dieten dimentsio nagusien jarraipena egitea ahalbidetzen du.

Atalaren helburua ez da urteko diagnostikoaren datu guztiak zehatz-mehatz jasotzea, baizik eta lurraldeko **gazteen errealitatearen egoera, aldaketak eta joerak identifikatzea,** *Bizkaia Gazteak 2030* estrategiaren ardatz eta helburu estrategikoei dagokienez. Informazio hori lagungarria izango da ***Bizkaia Gazteak 2030* Estrategiako programak gazteen egoera hobetzen laguntzen ari diren jakiteko eta programa horiek testuinguruaren aldaketetara erabat egokituta dauden jakiteko.**

Horretarako, **lehentasunezko 16 adierazleak** interpretatu dira: **erreferentziakoak (3) eta goiburukoak (13).**

Erreferentziazko adierazleak

ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK Diagnostikoaren funtsezko eta lehentasunezko helburuei erantzuten diete.		ESTRATEGIA ARGITARATU ZEN DATAKO DATUA	ESKURAGARRI DAGOEN AZKEN DATUA (berdez, bilakaera positiboa; gorriz, negatiboa)	2025erako EZARRITAKO ATALASEA (berdez, lortuta; gorriz, lortu gabea)
1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA	Emantzipazio-tasa	%32,9 (2020)	%31,4 (2024)	>%40 18 eta 34 urte arteko pertsonen > %40 jatorrizko etxetik kanpo biziko da.
	Emantzipatzeko batezbesteko adina (Bizkaia EAEren ordez)	29,4 urte (2020)	29,8 años (2024)	<29 años Gazteen emantzipatzeko batezbesteko adina < 29 urte izango da.
2. ARDATZA. GIZARTE-ERAIKUNTZA	Gai publikoetan parte hartu nahi izatea	%55,3 (2020)	%57,2 (2024)	>%60 Gazteen > %60k gai publikoetan gehiago parte hartu nahi izango du.

Goiburuko adierazleak - 1. ARDATZA.EMANTZIPAZIOA

GOIBURUKO ADIERAZLEAK Diagnostikoaren helburu estrategikoei erantzuten diete		ESTRATEGIA ARGITARATU ZEN DATAKO DATUA	ESKURAGARRI DAGOEN AZKEN DATUA (berdez, bilakaera positiboa; gorriz, negatiboa)	2025erako EZARRITAKO ATALASEA (berdez, lortuta; gorriz, lortu gabea)
1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA	Lotutako enpleguaren tasa	%75,2 (2020)	%70,5 (2023)	>%80 Gazteen > %80k bere prestakuntzarekin lotura handia edo nahikoa duen lanpostua izango du.
	Langabezia-tasa	%23,3 (2020)	%12,9 (2025)	<%20 Gazteen < %20 langabezian egongo da.
	Gehiegizko ahalegin ekonomikoa etxebizitza ordaintzeko	%19,3 (2019)	%15,7 (2023)	<%17 Gazteen < %17k diru-sarreren % 40 baino gehiago erabili beharko du hipoteka edo alokairua ordaintzeko.
	Lehen seme-alaba izatean amaren batezbesteko adina	32,4 urte (2020)	32,5 urte (2024)	<31 urte Emakumeek lehen seme-alaba izateko batezbesteko adina < 31 urte izango da.

GOIBURUKO ADIERAZLEAK - 2. ARDATZA. GIZARTE-ERAIKUNTZA

GOIBURUKO ADIERAZLEAK Diagnostikoaren helburu estrategikoei erantzuten diete		ESTRATEGIA ARGITARATU ZEN DATAKO DATUA	ESKURAGARRI DAGOEN AZKEN DATUA (berdez, bilakaera positiboa; gorriz, negatiboa)	2025erako EZARRITAKO ATALASEA (berdez, lortuta; gorriz, lortu gabea)
2. ARDATZA. GIZARTE-ERAIKUNTZA	Benetako pobreziaren tasa	%6,3 (2020)	%7,6 (2024)	<%6 izango da oinarrizko premiak behar bezala ez betetzeko arriskuan dauden gazteen ehunekoa.
	Jasanezintasun ideologikoa	%26,7 (2020)	%24,8 (2024)	<%15 izango da beren ideia, sinesmen edo balioez bestelakoak dituzten pertsonekin oso edo nahiko deseroso sentitzen diren gazteen ehunekoa.
	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa	7,9 milako (2020)	9,4 milako (2024)	<7 milako izango da indarkeria matxistagatik salaketaren bat jarri duten emakumeen tasa.
	Sexu bereko pertsonen ezkontzari laguntzeko tasa	%97,8 (2020)	%92,6 (2024)	>%98 bikote eta ezkontza forma guztiak onartuko dira eta guztien adostasuna egongo da.
	Etorkinak sartzearen aurkako gaitzespenaren tasa	%0,3 (2020)	%1,9 (2024)	<%1 immigrazioaren ekarpen positiboari buruzko adostasuna mantenduko da.
	Antsietate- eta depresio-tasa	%14,2 (2018)	%16,7 (2023)	<%10 izango da aurreko hilabetean depresio- edo antsietate-arazoak izan dituzten gazteen tasa.
	Lagunekin euskara erabiltzen duten gazteen tasa	%22,0 (2016)	%24,5 (2021)	>%25 izango da lagunekin nagusiki euskaraz edo euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiten duten gazteen ehunekoa.
	Kontsumo jasangarriaren adierazlea	%40,7 (2021)	%47,5 (2025)	>%45 izango da bost jokabide jasangarri hauetatik lau ohikotasunez egiten dituzten gazteen ehunekoa: ontzi gutxi erosten saiatzea, poltsa eramatea, zaborra bereiztea...
	Boluntariotzaren tasa	%11,4 (2021)	%16,7 (2025)	>%14 izango da boluntariotzan aritu ohi diren gazteen ehunekoa.

0.2 Gazteen testuinguruaren gakoak

- **Funtsezko adierazleen %44k (16tik 7k) bilakaera positiboa izan dute** *Bizkaia Gazteak 2030* Estrategia indarrean jarri zenetik, eta **%56k negatiboa (9).**
- **Adierazleen %25ek soilik** (16tik 4) **lortu du 2025erako ezarritako atalasea.**
- Bilakaera ona erregistratu da **gazteen langabeziari, kontsumo jasangarriari eta boluntariotzari dagokienez,** dagoeneko ezarritako helburua bete baitute.
- **Lortu nahi den helburutik urrunen dauden adierazleak bizi-autonomiari lotutakoak dira:** emantzipazio-tasa, emantzipatzeko batezbesteko adina eta lotutako enplegua.
- **Osasun mentalarekin, berdintasunarekin, bizikidetzarekin eta aniztasunarekin lotutako adierazleen joerak kezkagarriak dira,** ia guztiak Gizarte-eraikuntza ardatzekoak.

EMANTZIPAZIOA ARDATZAREN ONDORIOAK

2025eko gazte diagnostikoaren txostenak egoera paradoxikoa islatzen du: gazteak oso prestatuta dauden eta haien lan-egoera hobetzen ari den arren, oraindik ere oztopoak aurkitzen dituzte, emantzipazioa nabarmen atzeratzen dutenak.

Gazteek **kualifikazio-maila handia** dute: ia bi pertsonatik hiruk goi-mailako ikasketak dituzte. Hala ere, **Zientzian eta Teknologian graduatutako hiru gaztetik bat bakarrik da emakumea.**

Enplegua lortzeari buruzko datuak hobetu dira: langabezia-tasa %12,9 da, eta behin-behinekotasuna jaisten ari da (%39,3). **Hala ere, enpleguaren kalitatea erronka handia da:** batez besteko soldata pixka bat igo da, partzialtasuna mantendu egin da (%30) eta emakumeek behin-behinekotasun handiagoa eta diru-sarrera baxuagoak dituzte.

Etxebizitzaren prezioaren igoerak gazteen ahalmen ekonomikoa nabarmen gainditzen du; hala, emantzipazio-tasa %30 ingurukoa da, eta emantzipatzeko batezbesteko adina 30 urte ingurukoa. **Emakumeek** baldintza zorrotzagoak dituzten arren, **gizonak baino 1,2 urte lehenago** emantzipatzen dira.

Migrazio-mugimenduen ondorioz biztanleria gazteak gora egin duen arren, ugalkortasunak 1,05 seme-alabakoa izaten jarraitzen du emakumeko. Bestalde, **testuinguru ekonomiko eta soziala bizi-proiektuak finkatzeko oztopotzat jotzen da; izan ere, gazteen %32k uzte du ezingo duela seme-alabarik eduki nahi duen adinean.**

GIZARTE-ERAIKUNTZA ARDATZAREN ONDORIOAK

Diagnostikoak gazteak aktiboagoak eta konprometituagoak direla erakusten du, baina, era berean, zaurgarriagoak eta mesfidatiagoak direla beren gizarte- eta erakunde-inguruneari begira.

Benetako pobreziak bilakaera txarra izan du, eta %7,6 izan da, 2025erako ezarritako atalasearen gainetik. **Zailtasun ekonomikoek gazteen zati handi bati eragiten diote oraindik ere, batez ere emakumeei:** %35ek diote hilaren amaierara iristeko arazoak dituztela.

Gazteek konpromiso handia dute berdintasunarekin, eta %76k feministak direla diote. Hala ere, **alerta-seinaleak areagotu egin dira bizikidetzari, tolerantziari, diskriminazioari, indarkeriari eta segurtasunik ezari dagokienez, batez ere emakumeen artean:** ia %70ak dio kalean bakarrik ibiltzeak beldurra ematen diola.

Gazteen %6,1ek soilik du bere osasunaren pertzepzio negatiboa, eta kirola oso hedatuta dago. Hala ere, **okerrera egin dute obesitatearen, osasun-arazo kronikoen eta ondoez emozionalaren adierazleek:** gazteen %16,7ak antsietatea du, eta %7ak bakardadea sentitzen du.

Gazteek gero eta ingurumen-sentsibilitate handiagoa dute: %64k ekologistatzat jotzen dute beren burua, eta kontsumo jasangarriko ohiturek gora egin dute (%47,5).

Gazteen parte-hartze kulturala oso aktiboa da, eta kultura-jardueren kontsumoa eta sare sozialen erabilera areagotu dira. Hala ere, **euskararen eguneroko erabilera txikia da oraindik, nahiz eta gazte euskaldunen kopuruak gora egin duen:** %24,5ek soilik erabiltzen du lagunekin.

Gazteek interes handiagoa dute politikari eta gai publikoetan parte hartzeari dagokienez, eta %60k gehiago inplikatu nahi dute. **Interes hori gorabehera, alderdi politikoekiko gaitzespen nabarmena eta erakundeekiko mesfidantza daude:** %69,2k uste du erakundeek ez dituztela gazteak kontuan hartzen.

2 ESKU-HARTZEAREN DATU OROKORRAK

2023 eta 2025 artean egindako esku-hartzearen datu nagusiak jaso dira, garatutako programa kopuruari, gauzatutako aurrekontuari eta erakarritako pertsonei dagokienez.

2023. urtea hartu da abiapuntutzat, urte horretan egokitu baitziren erabat urteko plangintzak *Bizkaia Gazteak*-en arkitekturara (estrategia 2022an onartu zen).



2023-2025 ALDIKO ESKU-HARTZEAREN DATUAK

GAUZATUTAKO AURREKONTUA

315.756.472 €

BURUTUTAKO PROGRAMAK

550

ERAGINDAKO PERTSONAK

79 mila/urte

2.1 Gauzatutako aurrekontua

	2023	2024	2025	METATUA
Forala	91.238.757,54 €	100.633.366,58 €	120.315.906,76 €	**312.188.031 € (%98,9)**
Eskualdekoa	1.153.466,00 €	1.149.539,00 €	1.085.295,29 €	**3.388.300 € (%1,1)**
Gaztea	60.015,47 €	60.043,43 €	60.081,95 €	**180.141 € (<%0,1)**
Guztira	**92.452.239 €**	**101.842.949 €**	**121.461.284 €**	**315.756.472 €**

- Aztertutako aldian, **315.756.472 euroko aurrekontua gauzatu da guztira, gehiena foru-dimentsioan (%98,9).**
- **Joera goranzkoa da urtez urte;** izan ere, aurrekontua %31 igo da 2023aren eta 2025aren artean.

Jarraian, **estrategiaren ardatz eta helburu bakoitzeko gauzatutako aurrekontua** jaso da, 2025eko datuak soilik erabilita.

EGIKARITUTAKO AURREKONTUA 2025		FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	ZENBATEKOA GUZTIRA ETA %
EMANTZIPAZIOAREN ARDATZA 49.413.016,3 € %40,7	Prestakuntza	3.487.481,60 €	385.956,10 €	12.691,50 €	**3.886.129,20 € (%3,2)**
	Enplegua	7.229.813,70 €	135.276,80 €	17.112,40 €	**7.382.202,90 € (%6,1)**
	Etxebizitza	28.634.915,00 €	-	-	**28.634.915,00 € (%23,6)**
	Familia	9.509.769,20 €	-	-	**9.509.769,20 € (%7,8)**
GIZARTE-ERAIKUNTZAREN ARDATZA 72.048.267,9 € %59,3	Inklusioa	50.576.684,60 €	73.197,30 €	-	**50.649.881,90 € (%41,7)**
	Aniztasuna	1.452.957,20 €	89.554,40 €	-	**1.542.511,60 € (%1,3)**
	Osasuna eta ongizatea	130.000,00 €	200.305,10 €	-	**330.305,10 € (%0,3)**
	Kultura-nortasuna	1.017.804,50 €	6.412,70 €	-	**1.024.217,20 € (%0,8)**
	Jasangarritasuna	16.558.326,20 €	3.614,60 €	-	**16.561.940,80 € (%13,6)**
	Parte-hartzea	1.718.154,90 €	190.978,20 €	30.278,20 €	**1.939.411,30 € (%1,6)**
Guztira		**120.315.906,90 €**	**1.085.295,20 €**	**60.082,10 €**	**121.461.284,20 €**

- Ardatzen arabera, aurrekontu-banaketak **gauzatutako programa kopuruaren banaketa berdina** erakusten du: **%41 emantzipazioa eta %59 gizarte-eraikuntza.**
- **Inklusioak *Bizkaia Gazteak*-en aurrekontuaren zati handi bat hartzen du** (%42), eta, ondoren, Etxebizitzak (%24).
- **Prestakuntzak,** programa asko barne hartzen dituen arren (%24), **aurrekontuaren %3 bakarrik hartzen du.**

2.2 Gauzatutako programak

	2023	2024	2025	GUZTIRA, DIMENTSIOKA
Forala	81	76	88	**245 (%44,5)**
Eskualdekoa	78	88	116	**282 (%51,3)**
Gaztea	8	8	7	**23 (%4,2)**
Urtekoa, guztira	**167**	**172**	**211**	**550**

- Aztertutako aldian, **guztira 550 programa burutu dira, gehienak eskualde-dimentsioan (%51).** Gazte dimentsioak pisu txikia du termino kuantitatiboetan (%4).
- **Burututako programa kopuruaren joera goranzkoa da argi eta garbi,** %26ko igoera egon baita 2023aren eta 2025aren artean.

Jarraian, **estrategiaren ardatz eta helburu bakoitzeko gauzatutako programak** jaso dira, 2025eko datuak soilik erabilita.

BURUTUTAKO PROGRAMAK 2025		FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	ZENBATEKOA GUZTIRA ETA %
EMANTZIPAZIOAREN ARDATZA 85 programa %40,3	Prestakuntza	16	34	2	**52 (%24,6)**
	Enplegua	12	9	2	**23 (%10,9)**
	Etxebizitza	3	-	-	**3 (%1,4)**
	Familia	7	-	-	**7 (%3,3)**
GIZARTE-ERAIKUNTZAREN ARDATZA 126 programa %59,7	Inklusioa	19	7	-	**26 (%12,3)**
	Aniztasuna	8	14	-	**22 (%10,4)**
	Osasuna eta ongizatea	1	26	-	**27 (%12,8)**
	Kultura-nortasuna	5	5	-	**10 (%4,7)**
	Jasangarritasuna	8	3	-	**11 (%5,2)**
	Parte-hartzea	9	18	3	**30 (%14,2)**
Guztira		**88**	**116**	**7**	**211**

- **Oreka dago ardatz bakoitzeko programa kopuruari begira,** nahiz eta gizarte-eraikuntzakoak pixka bat gehiago diren (%60).
- Helburuen arabera, alde nabarmenak daude: **Prestakuntzak programen laurdena barne hartzen du,** eta Jasangarritasunak, Familiak eta Etxebizitzak garrantzi kuantitatibo txikiagoa dute. Azken bi horiek foru-dimentsioan bakarrik lantzen dira.

2.3 Eragindako pertsonak

	2023	2024	2025	URTEAN ERAGINDAKO PERTSONAK, BATEZ BESTE
Forala	46.991	50.953	102.955	**66.966 (forala)**
Eskualdekoa	8.325	8.664	18.553	**11.847 (eskualdekoa)**
Gaztea	585	329	2.070	**995 (gaztea)**
Urtean eragindako pertsonak	**55.901 pertsona**	**59.946 pertsona**	**123.578 pertsona**	**79.808 pertsona urtean, batez beste**

Datua jaso daitekeen programen onuradunen kopurua.
(*) Ez da pertsona bakarren kopurua (gazte batek programa batean baino gehiagotan parte hartu ahal izan du)

- 2023 eta 2025 artean, gazte asko erakartzea lortu da: ia 80.000 urte bakoitzeko, batez beste. Hain zuzen, **kopururik handiena 2025ean erregistratu da:** 120 mila gazte baino gehiago.
- Garrantzitsua da kontuan hartzea hainbat programatan **erakunde eta eragile parte-hartzaileen kopuruari buruzko datuak biltzen hasi garela;** beraz, baliteke *Bizkaia Gazteak 2030* Estrategiaren azken ebaluazioan **datu gehigarriak** ematea **(ikastetxe, enpresa, familia, elkarte eta abarren kopurua).**

PARTE-HARTZAILEAK SEXUAREN/ GENEROAREN ARABERA (2023-2025)	EMAKUMEAK	GIZONAK
Forala	%46,3	%53,7
Eskualdekoa	%49,0	%51,0
Gaztea	%47,5	%52,5
Batezbesteko orokorra	**%46,8**	**%53,2**

Bizkaia Gazteak 2030eko programetan parte hartu duten pertsonak identifikatzen diren sexuaren/generoaren araberako banaketa (informazioa dagoen programen parte-hartzaileak hartu dira kontuan).

- *Bizkaia Gazteak 2030*eko programetan parte hartu duten pertsonen **sexuaren/generoaren araberako banaketa orekatua da.** Gizonen kopurua zertxobait handiagoa da hiru dimentsioetan.
- Gaur egun, **"ez-bitarra" kategoriaren datuen bilketa ezartzen ari da** programetan. Datu hori, ziurrenik, *Bizkaia Gazteak 2030* Estrategiaren azken ebaluazioan eskaini ahal izango da.

3 ESKU-HARTZEAREN ERAGINA

Bizkaia Gazteak-eko programek eragindako eraldaketa positiboak hurbiltzen dituzten adierazleak jaso dira, galdetegi politiko-teknikoa eta gazte onuradunei egindako galdetegia oinarri hartuta.

ERAGINA PROFIL POLITIKO-TEKNIKOEN ARABERA

EMAITZEN IRISMENA

- ✔ %76, handia edo nahiko handia
- ✔ 4/5, batez beste

EFIZIENTZIA

- ✔ %88, handia edo nahiko handia
- ✔ 4,4/5, batez beste

PROGRAMAK DUEN ERAGINA HAUTEMATEN DUTEN LANGILEEN %, HONAKO HAUEI DAGOKIENEZ:	
Gaitasunak eskuratzea	%80,9
Ongizate emozionala	%64,3
Gizarte-harreman berriak	%62,1

PROGRAMETAN HONAKO HAUEN PARTE-HARTZE HANDIA HAUTEMATEN DUTEN LANGILEEN %	
Beste herrialde batzuetatik datozen mutilak	%40,4
Beste herrialde batzuetatik datozen neskak	%39,6
Ingurune komunitarioko beste eragile batzuk	%31,9

ERAGINA GAZTEEN ARABERA

GOGOBETETZE-MAILA

- ✔ 3,6/5

ERAGIN GEHIEN HAUTEMANDAKO ARLOAK	
Inguruneko ekimenak ezagutzea	3,5/5
Gaitasunak eskuratzea	3,4/5
Gizarte-harreman berriak	3,4/5

Jarraian xehe aztertuko ditugu →

3.1 *Bizkaia Gazteak 2030* estrategiaren eragina, teknikarien eta politikarien arabera

***Bizkaia Gazteak 2030* Estrategiaren programen eragina bost item** hauen bidez neurtu da:

- Programaren **emaitzen irismen-maila.**
- **Emaitzen alde eta aurka jokatu duten faktoreak.**
- Programek sortutako **eragin zehatzak.**
- **Kolektibo jakin batzuek** programetan **duten parte-hartzearen** ehunekoa.
- Programetan **genero-ikuspegia** aplikatu den.

EMAITZEN IRISMEN-MAILA

Emaitzen irismen-mailaren balorazioa ona da, 4/5ekoa batez beste.

- **Emaitzen irismen-mailarekin ados daude aztertutako profil guztiak,** baina aldeak daude sexuaren, lanpostuaren eta programaren dimentsioaren arabera.
- **Lanpostuari dagokionez, «beste bat» profileko pertsonek baloraziorik onenak egin dituzte** (4,5 batez beste), teknikariekin eta politikariekin alderatuta.
- **Dimentsioari dagokionez, gaztea nabarmentzen da, batezbesteko altuena lortu baitu: 4,6.** Eskualdekoak baloraziorik txikiena jaso du: 3,9.

Zer neurritan uste duzu lortu dituela programak espero ziren emaitzak?

EMAITZEN IRISMEN-MAILA	EMAKUMEAK	GIZONAK	PROFIL TEKNIKOA	PROFIL POLITIKOA	BESTE BAT	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
(5) Erabat	%38,9	%31,6	%34,8	%36,4	%56,7	%37,4	%26,6	%74,3	**%37,7**
(4) Neurri handi batean	%37,4	%44,7	%39,1	%36,4	%36,7	%37,4	%45,9	%20,0	**%38,6**
(3) Partzialki	%16,7	%15,8	%17,4	%22,7	%6,7	%17,6	%19,3	%2,9	**%16,5**
(2) Gutxi	%4,5	%2,6	%5,4	%0,0	%0,0	%4,4	%5,5	%0,0	**%4,2**
(1) Ezer ez	%1,5	%2,6	%2,2	%0,0	%0,0	%1,1	%1,8	%2,9	**%1,7**
ED/EE	%1,0	%2,6	%1,1	%4,5	%0,0	%2,2	%0,9	%0,0	**%1,3**
Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	**%100,0**
Batezbestekoa	**4,1**	**4,0**	**4,0**	**4,0**	**4,5**	**4,0**	**3,9**	**4,6**	**4,0**

Emaitzen irismen-maila antzekoa da Emantzipazioari eta Gizarte-eraikuntzari begira, nahiz eta lehen ardatzak batezbesteko handiagoa lortu. Helburuen arabera, **Parte-hartzea eta Prestakuntza nabarmentzen dira bereziki;** Enpleguak, aldiz, balorazio neurritsuagoa lortu du, baina positiboa.

Zer neurritan uste duzu lortu dituela programak espero ziren emaitzak?

ARDATZAK	(5) ERABAT	(4) NEURRI HANDI BATEAN	(3) PARTZIALKI	(2) GUTXI	(1) EZER EZ	BATEZ BESTE (1-5)
Emantzipazioa	%42,3	%34,2	%16,2	%4,5	%2,7	**4,1**
Gizarte-eraikuntza	%33,9	%41,9	%16,9	%4,0	%3,2	**4,0**

HELBURUAK	(5) ERABAT	(4) NEURRI HANDI BATEAN	(3) PARTZIALKI	(2) GUTXI	(1) EZER EZ	BATEZ BESTE (1-5)
Aniztasuna	%25,9	%44,4	%25,9	%0,0	%3,7	**3,9**
Enplegua	%17,5	%52,5	%17,5	%10,0	%2,5	**3,7**
Prestakuntza	%52,0	%24,0	%18,0	%2,0	%4,0	**4,2**
Parte-hartzea	%41,0	%46,2	%10,3	%2,6	%0,0	**4,3**
Osasuna eta ongizatea	%42,3	%30,8	%15,4	%3,8	%7,7	**4,0**

(Erantzun kopuru oso txikiak dituzten helburuak ez dira aztertu)



Programen emaitzen balorazio kualitatiboari dagokionez, politikarien eta teknikarien diskurtsoan errepikatzen diren hainbat elementu esanguratsu daude:

Ekimen egonkorrak, ondo baloratuak eta helburuekin bat datozenak daude, batez ere prestakuntzan, inklusioan, laguntza emozionalean, ekintzailetzan, aisialdi hezigarrian eta parte-hartzean.

FINKATUTAKO PROGRAMAK

Programa batzuk irismen urrikoak badira ere, ondorio garrantzitsuak sortzen dituzte: gaitasunak, lehen lan-esperientzia, ahalduntzea, laguntza pertsonalizatua eta ongizatearen hobekuntza.

ERAGIN KUALITATIBO HANDIA

Enpleguko, praktiketako, beketako eta ekintzailetzako programak oso ondo baloratzen dira kontratazioa, enpresekiko harremana edo benetako proiektuak sortzen dituztenean.

LAN-EMAITZA NABARMENAK

Parte-hartze eta hazkunde handiko programekin batera, parte-hartzaile gutxiko edo publiko mugatuko programak daude (ikastetxeak, gaztelekuak edo erakundeak).

PARTE-HARTZE DESOREKATUA

Zabalkunde-lana gorabehera, **zaila da gazteentzako baliabideekin loturarik ez duten gazteekin konektatzea,** batez ere 25 urtetik gorako profilekin eta harreman instituzional txikiagoa duten beste batzuekin.

ESTALDURA MUGATUA

Zenbait zerbitzu beharrezkotzat jotzen dira, baina gutxi erabiltzen dira edo ez dira oso ezagunak. Sare sozialak eta gazte-kanalak hobetu beharreko arloak dira.

IKUSGARRITASUNA ETA KOMUNIKAZIOA

Ekimen batzuek egikaritze txikia, beheranzko eskaria, gazte-ikuspegi eskasa edo birformulatzeko beharra dute.

BERRIKUSI BEHARREKO PROGRAMAK

PROGRAMEN EFIZIENTZIA (BALIABIDEEN ETA EMAITZEN ARTEKO ERLAZIOA)

- **Programen efizientzia-maila** (inbertitutako baliabideen bidez lortutako emaitzak) **oso ondo baloratu da: 4,4/5etik.**
- **Datuak orekatuak dira** sexuaren/generoaren, lanbide-profilaren eta estrategiaren dimentsioen artean. **Gazteen dimentsioaren balorazio altua da nabarmentzekoa (4,7).**

Zure ustez, programak merezi izan du, lortutako emaitzei begira egindako ahaleginak kontuan hartuta?

EFIZIENTZIA-MAILA	EMAKUMEAK	GIZONAK	PROFIL TEKNIKOA	PROFIL POLITIKOA	BESTE BAT	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Erabat (5)	%60,1	%47,3	%56,0	%59,1	%70,0	%58,2	%52,7	%76,5	**%58,8**
Nahiko (4)	%26,8	%39,5	%29,3	%31,8	%23,3	%27,5	%33,6	%14,7	**%29,2**
Zertxobait (3)	%8,6	%7,9	%8,7	%9,1	%6,7	%8,8	%10,0	%2,9	**%8,6**
Gutxi (2)	%2,5	%2,6	%3,3	-	-	%2,2	%3,6	-	**%2,6**
Ezer ez (1)	%0,5	-	%0,5	-	-	-	-	%2,9	**%0,4**
ED/EE	%1,5	%2,6	%2,2	-	-	%3,3	-	%2,9	**%0,4**
Guztira	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	**%100**
Batez beste (1-5)	**4,5**	**4,4**	**4,3**	**4,5**	**4,6**	**4,5**	**4,3**	**4,7**	**4,4/5**

Emantzipazioari eta Gizarte-eraikuntzari lotutako programen efizientzia-mailaren artean ere **ez da alde esanguratsurik ikusi.**

Zure ustez, programak merezi izan du, lortutako emaitzei begira egindako ahaleginak kontuan hartuta?

EFIZIENTZIA-MAILA	EMANTZIPAZIOA	GIZARTE-ERAIKUNTZA
Erabat (5)	%64,9	%51,6
Nahiko (4)	%23,4	%33,9
Zertxobait (3)	%7,2	%9,7
Gutxi (2)	%2,7	%2,4
Ezer ez (1)	%0,9	-
ED/EE	%0,9	%2,4
Guztira	%100	%100
Batez beste (1-5)	**4,5**	**4,4**

EMAITZETAN ERAGINA IZAN DUTEN FAKTOREAK

- **Galdetegi politiko-teknikoan, prometarako garrantzitsuak diren hainbat faktoreren eragin positibo edo negatiboari buruz galdetu zen,** hala nola helburuen argitasunari, bultzada eta lidergo politikoari, bultzada eta lidergo teknikoari, eragileen koordinazioari eta baliabide ekonomikoen eskuragarritasunari buruz.
- **Bost taulek emaitza orokor positiboa islatzen dute. Helburuen argitasuna da ondoen baloratutako faktorea,** eta emaitzetan eragin oso ona edo ona duela jo da (%94,9). **Bestalde, bultzada eta lidergo politikoa da pisu positibo txikiena duen elementua** («Eraginik gabe» %36,6).
- **Nabarmentzekoa da erantzun negatibo gutxi egon direla.**

Zure ustez, zer eragin izan dute honako faktore hauek programaren emaitzetan?

FAKTOREA	ERAGIN OSO ONA + ONA
Helburuen argitasuna	%94,9
Baliabide ekonomikoen eskuragarritasuna	%93,6
Inplikatutako eragileekiko koordinazioa	%88,1
Bultzada eta lidergo teknikoa	%86,4
Bultzada eta lidergo politikoa	%62,5

HELBURUEN ARGITASUNA				
FAKTOREA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Oso ona	%56,0	%45,9	%82,9	**%55,3**
Ona	%34,1	%51,4	%17,1	**%39,6**
Eraginik gabe	%9,9	%1,8	%0,0	**%4,7**
Txarra	%0,0	%0,9	%0,0	**%0,4**
Oso txarra	%0,0	%0,0	%0,0	**%0,0**

BALIABIDE EKONOMIKOEN ESKURAGARRITASUNA				
FAKTOREA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Oso ona	%54,9	%54,1	%60,0	**%55,3**
Ona	%34,1	%44,0	%31,4	**%38,3**
Eraginik gabe	%11,0	%1,8	%8,6	**%6,4**
Txarra	%0,0	%0,0	%0,0	**%0,0**
Oso txarra	%0,0	%0,0	%0,0	**%0,0**

Zure ustez, zer eragin izan dute honako faktore hauek programaren emaitzetan?

INPLIKATUTAKO ERAGILEEKIKO KOORDINAZIOA				
FAKTOREA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Oso ona	%49,5	%49,5	%77,1	**%53,6**
Ona	%30,8	%42,2	%20,0	**%34,5**
Eraginik gabe	%19,8	%7,3	%2,9	**%11,5**
Txarra	%0,0	%0,9	%0,0	**%0,4**
Oso txarra	%0,0	%0,0	%0,0	**%0,0**

BULTZADA ETA LIDERGO POLITIKOA				
FAKTOREA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Oso ona	%42,9	%25,7	%0,0	**%28,5**
Ona	%28,6	%42,2	%22,9	**%34,0**
Eraginik gabe	%28,6	%31,2	%74,3	**%36,6**
Txarra	%0,0	%0,9	%0,0	**%0,4**
Oso txarra	%0,0	%0,0	%2,9	**%0,4**

BULTZADA ETA LIDERGO TEKNIKOA				
FAKTOREA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Oso ona	%52,7	%40,4	%74,3	**%50,2**
Ona	%28,6	%45,9	%25,7	**%36,2**
Eraginik gabe	%18,7	%13,8	%0,0	**%13,6**
Txarra	%0,0	%0,0	%0,0	**%0,0**
Oso txarra	%0,0	%0,0	%0,0	**%0,0**

PROGRAMEK SORTUTAKO ERALDAKETA POSITIBO ZEHATZAK

- **Atal honetan, programek sortutako eragin zehatzak aztertzen dira, hainbat kategoriaren bidez** (ongizate emozionala, gaitasunak eskuratzea, lan-esperientzia, gizarte-harreman berriak, beste kultura edo kolektibo batzuekiko harremana, garapen komunitarioko ekimenak ezagutzea eta estereotipoak haustea).
- **Gehien adierazi den eraldaketa positiboa «Gaitasunak eskuratzea» da,** erantzunen **%80,9**an aipatu baita. **«Ongizate emozionala» eta «Gizarte-harreman berriak» bigarren postuan daude, %64,3rekin eta %62,1ekin, hurrenez hurren.**
- **«Lan-esperientzia» eta «Estereotipoak haustea» dira eragin gutxien jaso duten eremuak:** erantzunen %37,4 eta %42,1.
- **ED/EE edo zuri utzitako erantzunen ehunekoa nahiko handia da,** batez ere «Beste kultura edo kolektibo batzuekiko harremana» eta «Estereotipoak haustea» kategorietan (erantzunen herena baino gehiago kasu bietan).

Zure ustez, programak gazteei lagundu al die alderdi hauek modu positiboan eraldatzen?

ALDERDIA	GUZTIRA
Gaitasunak eskuratzea	%80,9
Ongizate emozionala	%64,3
Gizarte-harreman berriak	%62,1
Garapen komunitarioko ekimenak ezagutzea	%57,0
Beste kultura edo kolektibo batzuekiko harremana	%45,5
Estereotipoak haustea	%42,1
Lan-esperientzia	%37,4

GAITASUNAK ESKURATZEA				
ALDERDIA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Bai	%79,1	%78,9	%91,4	**%80,9**
Ez	%12,1	%2,8	%0,0	**%6,0**
ED/EE	%8,8	%18,4	%8,6	**%13,2**

ONGIZATE EMOZIONALA				
ALDERDIA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Bai	%58,2	%66,1	%74,3	**%64,3**
Ez	%16,5	%5,5	%0,0	**%8,9**
ED/EE	%25,3	%28,4	%25,8	**%26,8**

Zure ustez, programak gazteei lagundu al die alderdi hauek modu positiboan eraldatzen?

GIZARTE-HARREMAN BERRIAK				
ALDERDIA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Bai	%52,7	%65,1	%77,1	**%62,1**
Ez	%24,2	%17,4	%2,9	**%17,9**
ED/EE	%23,1	%17,4	%20,0	**%20,0**

GARAPEN KOMUNITARIOKO EKIMENAK EZAGUTZEA				
ALDERDIA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Bai	%40,7	%59,6	%91,4	**%57,0**
Ez	%36,3	%12,8	%5,7	**%20,9**
ED/EE	%23,1	%27,5	%2,9	**%22,1**

BESTE KULTURA EDO KOLEKTIBO BATZUEKIKO HARREMANA				
ALDERDIA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Bai	%47,3	%35,8	%71,4	**%45,5**
Ez	%28,6	%20,2	%2,9	**%20,9**
ED/EE	%24,2	%44,0	%25,7	**%33,6**

ESTEREOTIPOAK HAUSTEA				
ALDERDIA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Bai	%34,1	%44,5	%55,9	**%42,1**
Ez	%31,9	%11,8	%2,9	**%18,3**
ED/EE	%34,1	%43,6	%41,2	**%39,6**

LAN-ESPERIENTZIA				
ALDERDIA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Bai	%38,5	%33,0	%48,6	**%37,4**
Ez	%39,6	%42,2	%11,4	**%36,6**
ED/EE	%22,0	%24,8	%40,0	**%26,0**

“Estereotipoak haustea” item zehatzari dagokionez (programen %42k horretan eragina izan dute), honako hauek aipatzen dira:

Zure ustez, programak gazteei lagundu al die alderdi hauek modu positiboan eraldatzen?

GENEROA ETA ROL TRADIZIONALAK: zalantzan jartzea rol sexistak, genero-desberdintasunak, maskulinitate/feminitate normatiboak eta emakume gazteei buruzko estereotipoak.

BOKAZIOAK, IKASKETAK ETA LANBIDEAK: prestakuntza-ibilbideei, gaitasun akademikoei eta lanbide maskulinizatu edo feminizatuei buruzko aldez aurreko ideiak haustea.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA EKINTZAILETZA: zientzian, berrikuntzan, teknologian, artean eta ekintzailetzan erreferente femeninoak bultzatzea.

KULTURARTEKOTASUNA ETA JATORRIA: migratzaileei, kultura anitzei, nazionalitateei eta kulturen bizikidetzari buruzko aurreiritziak haustea.

ANIZTASUN SEXUALA ETA FUNTZIONALA: sentsibilizazioa LGTBI aniztasunari, sexu-identitateari, dibertsitate funtzionalari, gorren komunitateari eta aisiako eta kiroleko inklusioari buruz.

ADINA, OSASUN MENTALA ETA BESTE AURREIRITZI SOZIAL BATZUK: belaunaldien arteko estereotipoak haustea osasun mentalari, bullying/ziberbullyingari, etxebizitzari, kontsumoei eta gazteen autoestigmei buruz.

- ***Bizkaia Gazteak 2030*eko bi ardatzen arabera bereizitako eraginen ikuspegiari dagokionez, programa gehienek alderdi funtsezkoenetan eragin egokia izatea lortu dute** (gaitasunak eskuratzeari buruzko alderdia %92 izan da prestakuntza-programetan, ekimen komunitarioak ezagutzea %79 programa parte-hartzaileetan, ongizate emozionala %92 osasunari eta ongizateari buruzkoetan...).

«Bai» erantzun duten pertsonen ehunekoa bakarrik jaso da.

ARDATZA (“BAI” ERANTZUNEN %)	ONGIZATE EMOZIONALA	GAITASUNAK ESKURATZEA	LAN-ESPERIENTZIA	GIZARTE-HARREMAN BERRIAK	BESTE KULTURA EDO KOLEKTIBO BATZUEKIKO HARREMANA	GARAPEN KOMUNITARIOKO EKIMENAK EZAGUTZEA	ESTEREOTIPOAK HAUSTEA
Emantzipazioa	%54,1	%82,05	%51,4	%59,5	%35,1	%45,9	%38,7
Gizarte-eraikuntza	%72,6	%79,8	%24,2	%63,7	%54,0	%66,1	%45,2

ARDATZA (“BAI” ERANTZUNEN %)	ONGIZATE EMOZIONALA	GAITASUNAK ESKURATZEA	LAN-ESPERIENTZIA	GIZARTE-HARREMAN BERRIAK	BESTE KULTURA EDO KOLEKTIBO BATZUEKIKO HARREMANA	GARAPEN KOMUNITARIOKO EKIMENAK EZAGUTZEA	ESTEREOTIPOAK HAUSTEA
Aniztasuna	%77,8	%81,5	%3,7	%70,4	%77,8	%59,3	%81,5
Enplegua	%47,5	%70,0	%62,5	%52,5	%22,5	%35,0	%25,0
Prestakuntza	%50,0	%92,0	%54,0	%68,0	%38,0	%50,0	%42,0
Parte-hartzea	%59,0	%82,1	%38,5	%71,8	%51,3	%79,5	%41,0
Osasuna eta ongizatea	%92,3	%69,2	%15,4	%46,2	%46,2	%61,5	%15,4



KOLEKTIBOEN PARTE-HARTZE MAILA

- **Puntu honetan, programa bakoitzean hainbat gazte-kolektibok izan duten parte-hartzearen maila aztertu da** (beste herrialde batzuetatik datozen neska-mutilak, gehiengo ez diren kultura edo sentsibilitate erlijiosoetako neska-mutilak, dibertsitate funtzionala dutenak, LGTBI kolektiboarekin autoidentifikatzen direnak eta komunitate-inguruneko beste eragile batzuk).
- **Aztertutako kolektiboen parte-hartzea, oro har, ertaina-txikia izan da. Parte hartzen dute, baina ez gehiegi.**
- **Beste herrialde batzuetatik datozen gazteek izan dute parte-hartze handiena.**
- **Dibertsitate funtzionala duten pertsonek izan dute parte-hartze txikiena.** LGTBI kolektiboarekin autoidentifikatzen diren gazteen parte-hartzea ere txikia izan da.
- **Gazte dimentsioak biltzen ditu baloraziorik onenak ia kolektibo guztien parte-hartzeari dagokionez.**

Zer neurritan parte hartu dute programan kolektibo hauek?

KOLEKTIBOAK	PARTE HARTU DU ASKO + NAHIKO
Beste herrialde batzuetatik datozen mutilak	%40,4
Beste herrialde batzuetatik datozen neskak	%39,6
Ingurune komunitarioko beste eragile batzuk	%31,9
Gehiengo ez diren kultura edo sentsibilitate erlijiosoetako neskak	%28,1
LGTBI kolektiboarekin autoidentifikatzen diren gazteak	%25,5
Gehiengo ez diren kultura edo sentsibilitate erlijiosoetako mutilak	%26,8
Dibertsitate funtzionala duten mutilak	%20,0
Dibertsitate funtzionala duten neskak	%20,0

BESTE HERRIALDE BATZUETATIK DATOZEN MUTILAK				
PARTE-HARTZE MAILA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Asko (5)	%29,7	%17,4	%34,3	**%24,7**
Nahiko (4)	%3,3	%19,3	%37,1	**%15,7**
Zertxobait (3)	%26,4	%14,7	%5,7	**%17,9**
Gutxi (2)	%9,9	%9,2	%2,9	**%8,5**
Ezer ez (1)	%9,9	%13,8	%2,9	**%10,6**
ED/EE	%20,9	%25,7	%17,2	**%22,6**
Batez beste (1-5)	2,91	2,66	3,63	**2,90**

Zer neurritan parte hartu dute programan kolektibo hauek?

BESTE HERRIALDE BATZUETATIK DATOZEN NESKAK				
PARTE-HARTZE MAILA	FORALA	ESKUALDEKOA	GAZTEA	GUZTIRA
Asko (5)	%29,7	%14,7	%31,4	**%23,0**
Nahiko (4)	%4,4	%20,2	%37,1	**%16,6**
Zertxobait (3)	%25,3	%19,3	%8,6	**%20,0**
Gutxi (2)	%8,8	%10,1	%2,9	**%8,5**
Ezer ez (1)	%12,1	%10,1	%2,9	**%9,8**
ED/EE	%19,8	%25,7	%17,2	**%22,1**
